# NATURBIDEAK
## PASEOS NATURISTICOS



Arabako Foru Aldundia / Diputación Foral de Álava · www.alava.net
EUSKO JAURLARITZA / GOBIERNO VASCO
EMAS
VDALSAREA 21

**Amurrio** una invitación natural
Naturaren gonbidapena **Amurrio**



# NATURBIDEAK: Aresketa Mariaka Auzoak Kortina Izarza



Track eta informazio gehiago:
http://www.amurrio.org/es/modular_visita-rutas.html

AMURRIO UDALA AYUNTAMIENTO

## aurkezpena

Amurrio udalerriak 854 ha-ko herri onurako mendia du guztira, eta Basogintzako Kudeaketa Plan Iraunkorraren bitartez kudeatzen da. Plan horrek helburu hauek ditu: basoen dibertsifikazioa; basoen ekoizpen-funtzioak eta biodibertsitatea orekatzea; lurzorua eta ur-ibilguak babestea; eta, azkenik, erabilera publikoa bultzatzea ingurumen-hezkuntzaren bitartez eta herritarrek mendiaz gozatuz. Liburuxka honetan aurkezten diren bost naturbide edo natur-ibilbideak zehaztu dira, gozamen publikoa eta ingurumen-hezkuntza bultzatzeko asmoz. Kolore ezberdin batek adierazten du naturbide bakoitza; eta udalerriko herri onurako mendian ekosistema nolabait kontserbatuenetatik igarotzen dira ibilbideak. Gainera, Amurrioko natur ingurunean ingurumen-hezkuntzarako prestatu diren guneekin lotuta daude ibilbideak.

**Aresketa naturbidea.** 2,2 km / 30 min / Oso erraza / Gorria. Gainontzeko ibilbideen aldean, eremu handia hartzen du naturbide honek hiri barrutik, bertatik igarotzen baita; eta Amurrioko herriaren erdialdea lot zen du Aresketamendi energia berriztagarrien parke tematikoarekin eta udal Garbigunearekin.

**Mariaka naturbidea.** 3,5 km / ordubete / Erraza / Berdea. Amurrioko hirigunea gainerako naturbideekin lotzen du, eta aukera ezin hobea da ibilaldi biribil eta laburra egiteko, ibaiertzeko ekosistema atlantiarraz gozatuz.

**Auzoak naturbidea.** 10 km / 2 ordu eta 30 min / Erraza / Horia. Mariaka naturbidearen luzapena da, eta hirigunea eta Goikomendi-kuxkumendi natur inguruneko parkea lotzen ditu. Udalerriko antzinako auzoetatik igarotzen da.

**Kortina naturbidea.** 15 km / 3 ordu eta erdi / Erraza / Urdina. Auzoak naturbidea osatzen du. Udalerriko mendirik altuenetako bat den Aspaltza mendiaren tontorreraino eramaten gaitu, eta handik ikuspegi ederrak izango ditugu. Ibilbide polit-polita eta biribila egingo dugu udalerriko mendietatik.

**Izarza naturbidea.** 6 km/ ordu eta erdi / Erraza/ Laranja. Izarza ingurumen-zentroa eta Goikomendi-Kuxkumendi parkea lotzen ditu.

Goikomendi-Kuxkumendi natur inguruneko parkeari, Izarza ingurumen-zentroari eta Aresketamendi energia berriztagarrien parkeari buruzko informazio gehiago lortu nahi baduzu, gure web orrian sartu eta hantxe eskuratuko duzu:

## presentación

El municipio de Amurrio cuenta con un total de 854 Has. de Monte Público que se gestionan a través del Plan de Gestión Forestal Sostenible cuyos objetivos son la diversificación de la masa forestal, equilibrando las funciones productivas del bosque con el mantenimiento de la biodiversidad, la protección del suelo y los cursos de agua, al mismo tiempo que se potencia el uso público mediante la educación ambiental y el disfrute del monte por parte de la ciudadanía. Con el objetivo de potenciar el disfrute público y la educación ambiental, se han definido los cinco Naturbides o Paseos naturísticos que se presentan en este folleto. Cada naturbide se distingue por un color y son paseos que discurren por ecosistemas más o menos conservados del monte público del municipio y que a su vez conectan áreas dedicadas a la educación ambiental en el medio natural de Amurrio.

**Aresketa naturbidea.** 2,2 Km / 30 min./ Muy fácil./ Rojo. Es el naturbide más urbano de todos y conecta el centro urbano de Amurrio con el parque temático de las energías renovables de Aresketamendi y el garbigune municipal.

**Mariaka naturbidea.** 3,5 Km./1 hora / Fácil / Verde. Conecta el centro urbano de Amurrio con el resto de naturbides y es una opción ideal para dar un pequeño paseo circular disfrutando del ecosistema ribereño atlántico.

**Auzoak naturbidea.** 10 Km./ 2 horas y 30 min. / Fácil / Amarillo. Prolongación de Mariaka naturbidea que conecta el centro urbano con el parque del medio natural de Goikomendi-kuxkumendi y que transcurre por los antiguos barrios del municipio.

**Kortina naturbidea.** 15 Km./ 3 horas y media / Fácil / Azul. Completa Auzoak naturbidea, llevándonos hasta la cumbre de Aspaltza, uno de los montes más altos del municipio, para disfrutar de sus increíbles vistas y completar un magnífico recorrido circular por el monte municipal.

**Izarza naturbidea.** 5,5 Km. / 1 hora y media / Fácil / Naranja. Paseo que une el centro ambiental de Izarza con el parque del medio natural de Goikomendi-Kuxkumendi.

Para obtener mas información sobre el parque del medio natural de Goikomendi-Kuxkumendi, el Centro Ambiental de Izarza y el Parque de las Energía Renovables, Aresketamendi, no dudes en visitar nuestra pagina web:

**http://www.amurrio.org/es/article_services_Servicios_ma-educacion-ambiental.html**

## landaredia eta fauna

Landaredi aberatsa dago eta nahiko ondo kontserbatuta: bertako haritz-baso mistoak; txilardi/otadi/iratzedi atlantikoko guneak; pagadiak eta hezeguneak; baso-landaketako eremu zabalak intsinis pinua espezie nagusia delarik; eta ezin dugu aipatu gabe utzi 40 ha-ko Kuxkumendi – Goikomendi baso-eremua, bertan hostozabalen berrogeita hamar espezie baino gehiago daudela eta.

Faunari dagokionez, ornogabe ugariz (txantxiku arrunta, igel gorria) eta narrastiez gain (sugandila, arrabioa, uhandrea), eremua hegazti ezberdin askoren babeslekua da, hala nola, zapelatz arrunta, belatza, urubia, belea, belabeltza, eskinosoa, okil handia, zata arrunta, negu-txirta, kukua, kaskabeltz handia, pinu-kaskabeltza, amilotx urdina, buztanluzea, txonta, txorru arrunta, gerri-txoria, txinbo kaskabeltza, txantxangorria, zozoa, birigarro arrunta, tuntun arrunta, txepetxa, erregetxo bekainzuria, txio iberiarra eta gailupa.

Ibilbide luzean hainbat ekosistema ezberdin ditugu, eta bertan ugaztun batzuk bizi dira, hala nola: basasaguak, satorrak, azeria, azkonarra eta basurdea. Arretaz behatuz gero, ugaztun horien arrastoak eta eginkariak aurkituko ditugu; eta, zortea badugu, animalia horietakoren bat ere hurbiletik ikusiko dugu.

## flora y fauna

La flora que nos vamos a encontrar es rica y está bastante conservada, pudiéndose observar, bosques mixtos autóctonos de roble, zonas de matorral brezal – argomal – helechal atlántico, bosques de hayas y zonas de humedal, además de extensas zonas de plantaciones forestales, con el pino insignis como especie reina, sin olvidarnos del espacio forestal de Kuxkumendi – Goikomendi de 40 Has., donde podremos observar más de cincuenta especies de frondosas distintas.

Faunísticamente además de poder observar una gran variedad de invertebrados, anfibios como sapo partero y rana roja y reptiles como lagartijas, salamandras y tritones, esta zona sirve de refugio a una gran variedad de aves como: ratonero común, cernícalo, cárabo, cuervo, corneja, arrendajo, pico picapinos, chotacabras gris, bisbita común, cuco, carbonero común, carbonero garrapinos, herrerillo común, mito, pinzón, verderón común, agateador, trepador azul, curruca capirotada, petirrojo, mirlo, zorzal común, acentor común, chochín, reyezuelo listado, mosquitero ibérico y camachuelo.

Los ratones de monte, topos, ardillas, raposos, tejones, jabalíes, garduñas, martas, lirones, comadrejas y corzos son algunos de los mamíferos que habitan en los ecosistemas que iremos encontrando a lo largo de nuestro paseo, solo tenemos que ir observando cuidadosamente a nuestro alrededor, para poder encontrar huellas de estos mamíferos, excrementos y con un poco de suerte ver a alguno cerca nuestro.

# ibilbideak

## Mariaka

Mariaka naturbideari ekiteko eta, beraz, Auzoak eta Kortina naturbideak egiteko, udal kiroldegian bertan hasi behar dugu. Kiroldegia atzealdetik zeharkatu eta aurrera jarraitu behar dugu Abiaga eta Orue auzoetatik, aurrerantz beti eta seinaleei jarraituz harik eta naturbidearen hasieraraino heldu arte. Lehenengo trabesak adieraziko digu naturbidearen hasiera.

Naturbidearen lehenengo tartea Mariaka errekastoaren albotik igarotzen da; eta horrela, ondo zaindutako ur-bazterreko ekosistemak ikusiko ditugu, batik bat, haltzadi kantauriarrak. Haltzak, sahatsak, lizarrak eta hurritzak ikusi ahal ditugu, eta bai eta bizi-iturria den errekasto baten ertzetan babesten diren animalia txiki ugari ere.

Mariaka baserriraino doan seinaleztatutako bidezidorretik jarraituko dugu. Kondairak dioenez, hantxe *Fabián de Mariaka* pertsonaia izugarri indartsua bizi zen. Baina baserrira heldu baino lehen, seinaleak adierazten duen eskuinaldeko bidetik joan eta Mariaka errekastoa berriro zeharkatu behar dugu, izen bereko haitza eskuinaldean utziz.

Desbideratzen bagara, bidearen eskuinaldeko maldatik jaitsiz, errekastoan dagoen *lapikoaren iturria*n (burdinazko iturria) geldiunea egin ahal dugu. Iturriko ur freskoa edan ondoren, bide nagusitik itzuli eta aurrera jarraituko dugu.

Metro batzuetara Auzoak naturbidearen hasiera aurkituko dugu, eta hor bi aukera izango ditugu: gure ibilalditxoa luzatu eta 10 km gehiago egin, edo bestela Mariaka Naturbidetik jarraitu. Bigarrena hautatuz gero, bertako haritz-baso mistoak eta Altarraketa errekastoaren ondoko ibarbasoak ikusiko ditugu. Errekasto hori zeharkatu behar dugu; eta ur-araztegia eskuinaldean utzita, Larra baserrirantz abiatuko gara. Nahi izanez gero, desbideratu eta Larra iturrian geldi gaitezke; iturri hori 1983ko uholdeetan desagertu zen eta duela gutxi berreskuratu egin du udalak.

Bidera itzuli eta aurrera jarraituko dugu bidegurutze batera iritsi arte; eta gure ezkerretik jaisten den bidetik abiatuko gara kiroldegiraino.

## Auzoak

Auzoak naturbidea udal kiroldegian hasten da, eta Mariaka naturbidetik abiatu behar dugu 5 zenbakiko trabesaraino.

Lehenengo trabes horiak Auzoak naturbidearen hasiera adieraziko digu, Jaro Pardio bertako hariztian sartuz. Hariztia oso ondo kontserbatuta dago, eta antzinako haritzak ikusi ahal izango ditugu. Hariztia zeharkatu eta, apurka-apurka, Pardio auzora hurbilduko gara; eta udalerria hegoaldetik inguratzen duten Gorobel mendilerroa, Babio, Santa Cruz, Enkarterri eta Kolitza mendia ikusi ahal izango ditugu bertatik.

Behin Pardio zeharkatuta, bidegurutze batera heltzean, gure ezkerreko bidea hartu beharko dugu harik eta 5 zenbakiko trabesa ikusi arte. Leku horretan merezi du gelditu, eta ezkerreko bidezidorretik jaistea Pardio iturriraino seinaletik 200 metrora gutxi gorabehera; hantxe gorosti handi bik gure erreferentzia izan litezke burdinazko iturrira heltzeko.

Bidera itzuli eta aurrera joango gara bidegurutzeraino. Eskuinaldeko bidea hartu eta Goikomendi-kuxkumendi natur inguruneko parkeraino igotzen hasiko gara parkearen atzeko aldetik, zuzen-zuzenean begiratokiraino; handik parke osoa eta barruko ibilbideak ezagutu ahal izango ditugu.

Parketik irtengo gara oliobidearen pista asfaltatutik, eta ezkerraldetik desbideratuko gara Aldama udalerriko antzinako auzora jaisteko; auzo horretan oraindik ikus daiteke noizbehinkako biztanleren bat. Zuzen jarraituz gero, ibilbidea 15 km-ra luzatuko genuke Kortina naturbidetik.

Aldama auzoa zeharkatuta, pistatik jaisten jarraituko dugu San Roke auzora iritsi arte eta auzo horretan amaituko dugu ibilbidea.

## Kortina

Kortina Naturbidearen hasierara joateko udal kiroldegia atzealdetik zeharkatu behar dugu, Mariaka eta Auzoak naturbideetan bezalaxe, Kortina naturbidea eta Auzoak naturbidea batera doazelako 8. punturaino.

Goikomenditik irten eta oliobidearen pistatik jaitsiz, bidegurutze bateraino helduko gara (Auzoak naturbidea ezkerraldetik doa); eta aurrera joanda, lehengo trabesak Kortina naturbidearen hasiera adieraziko digu, egurra eta ikatza lortzeko gure arbasoen inausitako ehun urteko pagoen artean. Gutxi gorabehera 550 - 600 metroko altueran izango gara, eta, beraz, bertako landaredi hau ikusi ahal izango dugu: pagadiak, gorostiak, gurbeak eta beste espezie batzuk substratu azidoan, elorri zuria eta iratze ugari duen belar-geruza.

Hala eta guztiz ere, gune honetako bertako landarediaren ordez, intsinis pinuaren sailak daude; eta bertako landarediaren arrasto bakanak bide ertzean baino ez ditugu aurkituko, batez ere, gorostiak eta otakak.

Pistatik aurrera jarraitu eta eskuinaldera jotzen badugu, seinaleak kontuan hartuz, langa kanadarra ikusiko dugu, eta horrek adieraziko digu Aspaltza larrean sartzen ari garela. Larretik gora joanda, tontorrean dagoen postontziak 684 metroko altueran gaudela jakinaraziko digu. Leku horretatik metro gutxira herriko gailurrik altuena ikus daiteke: Eskorla mendia (700 metro).

Seinaleei jarraituz, Aspaltzatik jaitsiko gara haitzaren ebakitik, eta hortik Royasperaino helduko gara. Ebakiak zehazten duen bidezidor aldapatsutik jaitsi behar dugu, haitzean sartuko bagina bezalaxe, txilar eta iparraldeko elorri zuriez estalitako harkaitzen artean.

Alanbrada batek eten egingo du bat-batean bidezidorra, bertako baso baten eta pinudi baten arteko muga gisa. Eskuinaldera jo eta alanbrada zeharkatu gabe, beherantz jarraituko dugu eta baso zoragarriaz gozatu ahal izango dugu harik eta bidezidorretik pistara heldu arte.

Pistara heldu aurretik eskuinaldera hartzen badugu, naturbideari izena ematen dion antzinako eraikuntza bat ikusiko dugu: Kortinak, aspaldian gaztainak morkotsean gordetzeko erabiltzen ziren harrizko eraikuntza biribilak.

Ohiko eraikuntza ikusi ondoren, leku beretik alanbrada zeharkatu eta eskuinaldeko bidea hartu beharko dugu. Oliobidearen pistan izango gara; eta hori dela eta, berriro pinu intsinis izango dugu espezie nagusi.

Aurrera joanda, Izarza naturbidearen bidegurutzean gauza bi egin ahal izango ditugu: Izarza ingurumen zentrora jaitsi edo naturbidetik aurrera egin San Roke auzoraino.

Naturbidetik aurrera Salamanca izeneko zelaira helduko gara; aspaldian Salamancatik Bilbora eramaten zituzten zezenek zelai horretan hartzen zuten atseden, eta hortik datorkio izena.

Bidean beherantz jarraitu beharko dugu, askotan ikusten ez den bidezidor batetik, haritz, gaztainondo, gorosti eta Amurrioko mendietako beste espezie ugarien artean.

Seinaleei kasu eginez, Lekuzabal iturria eta izen bereko errekastoa agertuko zaizkigu; eta azkenean San Roke auzora iritsiko gara.

# recorridos

## Mariaka

Para acceder al inicio del Naturbide Mariaka y por ende al Naturbide Auzoak y Kortina, nos situamos en el Polideportivo municipal y lo atravesamos por su parte trasera, continuamos atravesando el Barrio Abiaga y el Barrio Orue, siempre hacia delante siguiendo las indicaciones hasta llegar al inicio del Naturbide, marcado con la primera traviesa.

El primer tramo del naturbide transcurre al lado del arroyo Mariaka, por lo que podremos disfrutar de ecosistemas de ribera bastante conservados, representados por la aliseda cantábrica, encontrándonos con alisos, sauces, fresnos, avellanos y multitud de pequeños habitantes que se refugian en las riberas de un arroyo todavía hoy fuente de vida.

Continuamos el sendero señalizado que nos acerca al caserio de Mariaka, donde según cuenta la leyenda habitó Fabián de Mariaka, personaje que ha pasado a la historia por su enorme fuerza, pero no llegamos al caserio, antes cogemos el camino de la derecha según indica la señal, para cruzar de nuevo el arroyo Mariaka y dejar a la derecha la peña de su mismo nombre.

El paseo nos da la oportunidad de desviarnos y hacer una parada en la fuente de la cazuela, fuente de hierro, ubicada en el arroyo, descendiendo por la ladera derecha del camino.

Después de beber un trago de la fresca agua que mana de la fuente, volvemos al camino principal, para continuar nuestro entrañable paseo.

A unos metros nos encontramos con el inicio de Auzoak Naturbidea, dándonos la opción de alargar nuestro paseo hasta 10 Km o seguir por Mariaka Naturbidea disfrutando de los bosques mixtos de roble autóctonos y de los bosques de ribera que nos siguen acompañando junto con el arroyo Altarraketa, que cruzamos para poder seguir nuestra marcha hacia la depuradora de aguas, que dejamos a la derecha para continuar hasta el caserío de Larra, con la opción de desviarnos y hacer una parada en la fuente de Larra, fuente perdida en las riadas del 83 y recientemente recuperada.

Volvemos al camino y continuamos hacia delante hasta encontrarnos con una bifurcación de caminos, cogemos el camino que baja a nuestra izquierda hasta llegar al polideportivo.

## Auzoak

Para acceder al inicio del Naturbide Auzoak, debemos comenzar desde el Polideportivo municipal y recorrer el Naturbide Mariaka hasta su traviesa número 5.

La primera traviesa amarilla nos marca el inicio de Auzoak Naturbidea que nos adentra en el Jaro Pardio, robledal autóctono muy bien conservado donde podemos admirar los antiguos robles, lo atravesamos y nos vamos acercando poco a poco al barrio de Pardio, donde todavía podemos imaginar la vida en este barrio, desde el que podemos observar unas magníficas vistas de la Sierra Salvada, del Babio, de Santa Cruz, Encartaciones y el Kolitza que rodean al municipio por su zona sur.

Una vez cruzado Pardio, nos encontramos con un cruce de caminos, debemos continuar por el de nuestra izquierda, hasta encontrarnos con la traviesa 5 en la que merece la pena hacer una parada y bajar por el sendero de la izquierda hacia la fuente de Pardio, que encontramos a unos 200m desde la señalización, donde dos magníficos acebos nos sirven de punto de referencia para llegar a la fuente de hierro.

Volvemos al camino hasta la bifurcación que nos lleva a coger el sendero marcado de la derecha, en el que comienza la ascensión hacia el parque del medio natural de Goikomendi-kuxkumendi, al que accedemos por su parte trasera, directamente al mirador del que podremos disfrutar conjuntamente con el resto del parque que nos ofrece multitud de posibilidades y rutas internas.

Una vez hemos disfrutado del parque, salimos del mismo por la pista asfaltada del oleoducto y nos desviamos a la izquierda para bajar hasta el barrio Aldama, otro de los antiguos barrios del municipio, donde todavía hay moradores esporádicos, si siguiéramos recto tendríamos la posibilidad de ampliar nuestro recorrido a 15 Km, por el Kortina Naturbidea.

Después de atravesar Aldama continuamos bajando siempre por la pista hasta llegar al barrio San Roque donde acaba nuestro recorrido.

## Kortina

Para acceder al inicio del Naturbide Kortina, debemos comenzar desde el Polideportivo municipal y lo atravesamos por su parte trasera, al igual que en los naturbides Mariaka y Auzoak, ya que el Naturbide Kortina coincide con el Naturbide Auzoak hasta su punto 8.

Al salir de Goikomendi bajamos por la pista del Oleoducto hasta que nos encontramos con un cruce de caminos (hacia la izquierda continuaría el Naturbide Auzoak) seguimos hacia adelante y ya podemos observar la primera traviesa que nos indica el inicio del Naturbide Kortina, entre hayas centenarias trasmochadas por nuestros antepasados para la obtención de leña y carbón. Nos encontramos a una altura de aproximadamente 550 - 600 metros, por lo que la vegetación autóctona que deberíamos encontrar serían hayales conviviendo con otras especies como acebos y serbales que se asientan sobre sustrato ácido, junto con espinos blancos y estrato herbáceo con abundancia de helechos.

Sin embargo la vegetación autóctona en esta zona ha sido desplazada por plantaciones de pinus radiata y solo podemos observar algunos reductos de vegetación autóctona en los bordes del camino, donde destacan los acebos y las otacas.

Continuamos nuestro recorrido por la pista del Oleoducto y torcemos a la derecha siguiendo las indicaciones para continuar hasta encontrarnos con un paso canadiense que nos avisa de que nos adentramos en el pastizal de Aspaltza, el cual ascendemos subiendo a su cumbre por toda la cresta hasta llegar al buzón que nos indica que estamos a 684 metros de altura, desde aquí vislumbramos a pocos metros la cumbre más alta del municipio, el monte Eskorla con 700 metros de altitud.

Bajamos de Aspaltza por el corte de la peña según nos indica la señalización, por donde descenderemos hasta Royaspe. Debemos bajar por el sendero que nos marca el corte, como si nos introdujéramos en la peña, entre roca tapizada de una alfombra de brezos y los espinos albares que nos acompañan en nuestro escarpado descenso.

De repente el sendero se corta por una alambrada que marca el límite entre el bosque autóctono y un pinar, debemos torcer a la derecha y sin cruzar la alambrada seguir nuestro descenso disfrutando del maravilloso bosque en el que nos vamos introduciendo, continuando el descenso por el sendero hasta la pista.

Antes de llegar a la pista giramos a nuestra derecha para poder observar una antigua construcción, que da nombre al Naturbide, es una Kortina, antigua construcción de piedra de forma circular, con una entrada a un lado, donde se guardaban las castañas con su kirikiño o erizo, para su conservación.

Después de observar esta típica construcción, cruzamos la alambrada por el paso y tomamos el camino de la derecha. Hemos vuelto a la pista del Oleoducto donde el paisaje vuelve a ser monopolizado por el Pino insignis.

Continuamos hasta encontrarnos con el cruce de Izarza Naturbidea, en este punto podemos descender al Centro Ambiental de Izarza o continuar por el naturbide hasta el barrio de San Roke.

Avanzamos por el naturbide y llegamos al Campo Salamanca, que recibe el nombre por que antiguamente los toros de lidia que llegaban a Bilbao desde Salamanca, descansaban en esta zona.

Seguimos el camino hacia abajo, por un sendero muchas veces invisible que nos guía entre la espesura de los robles, castaños, acebos y multitud de especies en esta zona preciosa del monte de Amurrio.

Siguiendo la señalización nos encontraremos con la fuente de Lekuzabal, el arroyo de su mismo nombre, llegando finalmente al barrio de San Roke.

## Izarza

Naturbidea Izarza ingurumen-zentrotik abiatzen da. Zentroari basozainaren etxea ere deitzen zaio, egokitu baino lehen inguru horretako basozaina etxe horretan bizi zelako. Gutxi gorabehera 40 urteko harizti batean sarturik, hariztia aurrealdetik zeharkatzen duen pistatik jo beharko dugu inguru horretako gerizpean babestuta.

Harizti horretatik irten eta pinu intsinis sail gazte batean sartuko gara. Aurrerantz joanda eta desbideratu gabe, pinudi heldu batean agertuko gara ia-ia konturatu gabe.

Bidegurutzean ezkerraldeko bidea hartuko dugu, eta finkak bereizteko horma eraitsia ezkerrean geratuko da.

Ibilbideari jarraituz, aldapa txiki batetik igo eta pinu gorrien eta ametzen zuhaiztiak ikusiko ditugu.

Goian, aurrez aurre behera doan bide bat ikusiko dugu, eta harrizko beste bide batek gorantz jarraituko du ametz eta pinu gorrien artean. Beherantz doan bidea harturik, eskuinaldean Douglas izei multzo bat ikusiko dugu, bai eta haritzak, ametzak, elorri zuriak, sahats hauskarak, elorri beltzak, txilarrak, oteak . . . ere. Horrez gain, ikuspegi ederrez gozatu ahal izango dugu.

## Izarza

El naturbide parte del centro ambiental de Izarza o también llamada antigua Casa del Guarda, ya que antes de su rehabilitación fue el domicilio del guarda forestal de la zona y nos adentramos en un robledal joven de aproximadamente 40 años. Tomamos la pista que de frente atraviesa dicho robledal, aprovechando así el cobijo de la sombra en este paraje.

Dejamos el robledal y entramos en una plantación joven de pino insignis y continuamos por la plantación de frente sin tomar ningún desvío y casi sin darnos cuenta entramos en un pinar maduro.

Nos encontramos con un cruce de caminos donde tomamos el camino de la izquierda dejando en dicho lado un muro de división de fincas derruido.

Continuando por nuestro recorrido, mientras que subimos un pequeño repecho podemos disfrutar de un pinar de pino silvestre y un robledal de roble tocorno.

En el alto nos encontramos con un camino que empieza a bajar de frente, y otro camino empedrado que sigue subiendo entre tocornos y pinos silvestres. Tomamos el camino que empieza a bajar, el cual nos permite contemplar a la derecha una masa de abeto Douglas, así como diversos ejemplares de robles, tocornos, espinos blancos, bardagueras, endrinos, ericas, argomas, .., así como unas preciosas vistas.

Nos encontramos de frente con unos majestuosos robles, punto en el cual nos cruzamos con el Naturbide Kortina, tomamos la pista de la derecha que nos conduce hasta una pista de escoria que nos lleva hasta el parque del medio natural de Goikomendi-Kuxkumendi.

## Aresketa

Ibilbidea Aresketa ikastolaren aurreko bidean hasten da. Etxegoien kaleko gasolindegitik ikastolaraino heldu eta patioaren aurretik igarotzen den bidetik aurrera egin behar dugu. Bide horretatik goazela, eskuinaldean bidezidor bat ikusiko dugu, eta bertan dagoen lehenengo trabesak erakutsiko digu jarraitu beharreko bidea.

Aresketamendi energia berriztagarrien parke tematikoa inguratu eta sarreraraino doan bidezidorretik joan behar dugu. Parkeak aukera ezin hobea eskaintzen du energia-iturriei buruz zerbait ikasteko aire zabaleko parkean; eta, aldi berean, ikuspegi zoragarriez gozatu ahal izango dugu. Gainera, parkeak gauza erakargarri asko eskaintzen ditu.

Parkea atzean utzita, A-624 errepidea zeharkatu eta trabesa zenbakituetatik jarraitu behar dugu los Gallegos auzoraino; hantxe udal Garbiguneraino jarraitu ahal dugu harik eta ibilbidea amaitu arte.

Aurrez aurre haritz ikaragarriak ikusiko ditugu, eta hortxe Kortina naturbidearekin topo egingo dugu. Eskuinaldeko pistatik zepa-pista batera iritsiko gara, eta horrek Goikomendi-Kuxkumendi natur ingurunearen parkera eramango gaitu.

## Aresketa

Comenzamos nuestro paseo en el camino que pasa por delante de la Ikastola Aresketa a la que accedemos desde la gasolinera por la calle Etxegoien. Una vez en la Ikastola seguimos el camino que pasa por el frente del patio sin abandonarlo hasta que nos encontramos con un sendero a mano derecha, donde vemos la primera traviesa, que nos va a indicar el camino a seguir.

Cogemos el sendero que bordea el parque temático de las Energías renovables de Aresketamendi y nos lleva a su entrada, una buena opción para aprender sobre las fuentes de energía disfrutando de un parque al aire libre, con magníficas vistas e innumerables atractivos.

Una vez pasado el parque debemos cruzar la carretera A-624 y continuar nuestro paseo siguiendo las traviesas numeradas, hasta el barrio de los Gallegos, desde aquí podremos continuar hasta el Garbigune municipal donde concluye nuestro paseo.



